BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA

2357

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 15ekoa, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturaren zuzendariarena, Orozko eta Laudio udalerrietan «Nerbioi ibaiaren goiko arroa saneatzeko kolektoreen proiektua. 1. aldaketa. Basaurbe tartea. 8. eta 9. tarteak» izeneko proiektuko desjabetze-espedienteak eragindako ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak egiteko datak zehazten dituena.

2024ko martxoaren 15ean, Uraren Zuzendaritza Nagusiak, Ingurumeneko Estatu Idazkaritzaren eskumenak eskuordetuta eta TED/533/2021 Agindua (2021eko maiatzaren 31ko BOE) eta ondorengo aldaketak kontuan hartuta, teknikoki onartu zuen Nerbioi ibaiaren goiko arroa saneatzeko kolektoreen proiektua, Laudio, Orozko, Aiara eta Amurrio udal-mugarteetan (Araba eta Bizkaia). 2. lotea. 1. aldaketa.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariaren 2024ko azaroaren 11ko Ebazpenaren bidez hasi zen nahitaezko desjabetzearen espedientea «Nerbioi ibaiaren goiko arroa saneatzeko kolektoreen proiektua. 1. aldaketa. Basaurbe tartea. 8. eta 9. tarteak» izeneko proiektuaren eraginpeko ondasunak eta eskubideak okupatzeko, Laudio eta Orozko udalerrietan (Araba eta Bizkaia), kontuan hartuta lanak herri onurakoak direla eta eragindako lurzoru eta eraikinak hartu behar direla, desjabetzea egiteko edo zorrak ezarri ahal izateko. Hori guztia, Plan Hidrologiko Nazionalaren uztailaren 5eko 10/2001 Legean eta Uraren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera. Agindu beraren bidez, informazio publikorako izapidea egin zen, eraginpeko ondasunen eta eskubideen berri emateko (2024ko azaroaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian –231. zk–., Bizkaiko Aldizkari Ofizialean –229. zk.– eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean –135. zk.–)

Informazioa jendaurrean jartzeko denboraldia igarota, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren apirilaren 1eko 78/2025 Dekretuaren bidez, okupazioa presako deklaratu zen Orozko eta Laudio udalerrietan, «Nerbioi ibaiaren goiko arroa saneatzeko kolektoreen proiektua. 1. aldaketa. Basaurbe tartea. 8. eta 9. tarteak» izeneko proiektuko desjabetze-espedientearen eraginpeko ondasunak eta eskubideak nahitaez desjabetu ahal izateko.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan xedatutakoa betetzearren, honen bidez dei egiten zaie erantsitako zerrendako ondasun eta eskubideen titularrei, adierazitako egunean eta orduan, eta aldez aurretik beren udalean agertu ondoren, aldez aurretiko aktak egiteko bai eraginpeko ondasun eta eskubideak okupatzeko, bai, hala badagokio, lurzoruak okupatzeko; dena den, interesdunek hala eskatuz gero eta beharrezkoa bada, lurzoruetara bertara joan ahal izango da.

Egintza horretara interesdunek beraiek agertu beharko dute, edo haien izenean jarduteko behar bezala baimendutakoek, eta titulartasuna egiaztatzeko agiriak (eskritura publikoak, pribatuak, Jabetza Erregistroaren ziurtagiriak edo ohar informatiboak, eta abar) eraman beharko dituzte, baita haien eskubideak egiaztatzeko beste ezein agiri ere; hala nahi izanez gero, peritu edo notario batek lagunduta ere joan daitezke. Era berean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, argitaratutako zerrenda horretan agian agertzen ez diren eskubide errealen zein interes ekonomikoen titularrek eta interesdunek egoki iritzitako alegazio guztiak aurkeztu ahal izango dituzte, eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda

horretako okerrak zuzentzearren bakarrik. Alegazio horiek idatziz aurkeztu beharko dira Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzan: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Eta hori egiteko epea ondasunak okupatu aurreko aktak egiteko egunean amaituko da.

Egoitza elektronikoa, 2025eko maiatzaren 15a.

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturaren zuzendaria,
PABLO GARCIA ASTRAIN.

Finkaren zk.	Lur-eremua	Lur-zatia	Azpi-lurzatia	Udalerria	Jabea	Behin betiko desjabetza	Akueduktu-zortasuna	Aldi baterako okupazioa	Aurretiko aktak jasotzea		
									Eguna	Hilabetea	Ordua
M.OR-34	2	34	1, 3	Orozko	Uria Echevarria, Jose Maria	0	51,46	61,86	11	Ekaina	09:00
M.OR-172	2	172		Orozko	Orozkoko Udala	0	258,15	13,76	11	Ekaina	15:00
M.OR-35	2	35		Orozko	Uria Echevarria, Jose Maria	0	0	158,59	11	Ekaina	09:00
M.OR-33	2	33	1, 2, 3	Orozko	Echevarria Zalbide, Ignacio Pagazaurtundua Larrabide, Andresa Avelina	0	170,06	283,16	11	Ekaina	09:30
M.OR-32	2	32		Orozko	Echevarria Zalbide, Ignacio	0	100,28	282,12	11	Ekaina	09:30
M.OR-168	2	168		Orozko	Bizkaiko Foru Aldundia	0	166,12	288,88	11	Ekaina	15:00
M.OR-12001	1010	12001	1	Orozko	Orozkoko Udala	0	686,86	1.064,88	11	Ekaina	15:00
M.OR-5004	1010	5004	1	Orozko	Orozkoko Udala	0	0	23,26	11	Ekaina	15:00
M.OR-5005	1010	5005	1	Orozko	Echevarria Zalbide, Ignacio eta beste batzuk	0	199,42	53,93	11	Ekaina	09:30
M.OR-5009	1010	5009	1	Orozko	Utillajes Legu Sl	0	200,18	370,67	11	Ekaina	10:00
M.OR-4003	1010	4003	1	Orozko	Orozkoko Udala	0	340,43	427,44	11	Ekaina	15:00
M.OR-4005	1010	4005	1	Orozko	Orozkoko Udala	0	287,30	254,34	11	Ekaina	15:00
M.OR-140	50	140		Orozko	Autopista Vasco Aragonesa Concesionaria	0	25,90	33,34	11	Ekaina	15:00
M.OR-107	50	107		Orozko	Frigorificos de Basauri Sl	0	0	45,88	11	Ekaina	10:30
M.OR-59	50	59	1, 3, 4, 5	Orozko	Basterra Echevarria, Mª Pilar	0	627,88	1.673,23	11	Ekaina	11:00
M.OR-58	50	58		Orozko	Basterra Añibarro, Jose Otaola Eguia, Maria de las Mercedes	0	0	69,06	11	Ekaina	11:15
M.OR-110	50	110		Orozko	Ugarte Larrazabal, Maria Natividad	0	0	203,42	11	Ekaina	11:30
M.OR-162	2	162		Orozko	Confederación Hidrográfica Del Norte	0	435,40	1.165,7200	11	Ekaina	15:00
M.OR-125	2	125	3	Orozko	Uriondo Hierro, Mª Concepción	0	759,99	2.955,2200	11	Ekaina	12:00
M.OR-152	2	152	3	Orozko	Hormigones y Minas Sa	2.050,82	105,11	448,80	11	Ekaina	12:30
M.OR-152 ARR	2	152	3	Orozko	Arcanorsa	2.050,82	105,11	448,80	11	Ekaina	12:30
M.OR-142	2	142		Orozko	Basterra Larizgoitia, Arrate; Basterra Larizgoitia, Fco. Javier; Basterra Larizgoitia, Pedro Mª	677,21	500,80	1.099,84	11	Ekaina	13:30
M.OR-142 ARR	2	142		Orozko	Garnica Plywood Llodio	0	0	0	11	Ekaina	14:00
M.OR-154	2	154		Orozko	Hormigones y Minas Sa	0	1.247,94	2.705,81	11	Ekaina	12:30
M.OR-154 ARR	2	154		Orozko	Arcanorsa	0	1.247,94	2.705,81	11	Ekaina	12:30
M.OR-72	2	72	4, 5	Orozko	Basterra Añibarro, Jose Otaola; Eguia, Maria de las Mercedes	0	219,55	1.093,88	11	Ekaina	12:00
M.OR-161	2	161	1, 21, 22	Orozko	Bizkaiko Foru Aldundia. Herri Lan Saila	0	6.499,1300	11.690,89	11	Ekaina	15:00
M.OR-73	2	73		Orozko	Sustapen Ministerioa. Errepide Zuz. Nag.	0	0	180,62	11	Ekaina	15:00

Finkaren zk.	Lur-eremua	Lur-zatia	Azpi-lurzatia	Udalerria	Jabea	Behin betiko desjabetza	Akueduktu-zortasuna	Aldi baterako okupazioa	Aurretiko aktak jasotzea		
									Eguna	Hilabetea	Ordua
M.OR-74	2	74		Orozko	Sustapen Ministerioa. Errepide Zuz. Nag.	0	0	133,55	11	Ekaina	15:00
M.OR-75	2	75		Orozko	Ugalde Sautua, Maria Amparo	0	0	23,63	11	Ekaina	14:30
M.OR-129	2	129	2	Orozko	Pagazaurtundua Larrabide, Andresa Avelina	0	0	519,09	12	Ekaina	09:00
M.OR-126	2	126	1	Orozko	Cremades Gonzalez, Juan Miguel	0	187,94	177,77	12	Ekaina	09:15
M.OR-127	2	127	1, 2, 3	Orozko	Cremades Gonzalez, Juan Miguel	0	191,70	1.157,99	12	Ekaina	09:15
M.OR-82	2	82	1, 2, 4	Orozko	Ana Mª Gastaka Gorostiola	0	17,060	234,74	12	Ekaina	10:00
M.OR-164	2	164		Orozko	Orozkoko Udala	0		22,60	11	Ekaina	15:00
M.OR-80	2	80	3	Orozko	Cremades Gonzalez, Juan Miguel	0	249,77	509,97	12	Ekaina	09:15
M.OR-166	2	166		Orozko	Orozkoko Udala	0	241,86	78,48	11	Ekaina	15:00
M.OR-88	2	88	1, 2, 3	Orozko	Nubiola Vilumara, Ricardo	0	4,74	131,50	12	Ekaina	10:15
M.OR-138	2	138	1, 3	Orozko	Bilbao Alboniga, Juan Luis eta Echevarria Blazquez, Ana Mariaren oinordekoak	0	3,07	123,81	12	Ekaina	10:30
M.OR-137	2	137	1, 2, 3	Orozko	Agorreta Nieva, Maria Teresa	0	2,29	169,53	12	Ekaina	11:00
M.OR-83	2	83	1, 3	Orozko	Ana Mª Gastaka Gorostiola	0	49,02	110,04	12	Ekaina	11:15
M.OR-202	2	202		Orozko	Orozkoko Udala	48,20	55,89	45,88	11	Ekaina	15:00
M.OR-201	2	201		Orozko	Confederación Hidrográfica Del Norte	0	0	10,41	11	Ekaina	15:00
M.OR-87	2	87	2	Orozko	Mendilibar Renter Emeteria	0	8,82	23,78	12	Ekaina	11:30
M.OR-84	2	84	1, 3	Orozko	Picaza Olavarria, Maria Begoña	333,20	58,64	24,40	12	Ekaina	12:00
M.LA-803	7	803		Laudio	Ana Mª Gastaka Gorostiola	2,15	11,95	11,17	12	Ekaina	13:30
M.LA-144	7	144		Laudio	Anuntzibai 5 Jabe Erkidegoa	0	188,17	377,63	12	Ekaina	14:00
M.LA-740	7	740		Laudio	Gonzalez López de Ceballos, Mª Teresa	0	279,58	903,92	12	Ekaina	14:30
M.LA-145	7	145		Laudio	Eae	0	1.657,97	2.587,81	12	Ekaina	14:30